

«Din dan don, gabonak doinu eta musikarekin edonon»

Gaur arratsaldeko 19:00etan, kontzertua eskainiko dute, Doinu Zaleko ikasle eta akordeoi orkestrak, eta Ozenkik, Ereñotzun. Biterin ere, teklatu taldearen kontzertua ikusteko aukera dago.

URUMEA GABONETAKO KONTZERTUAK

Gaur arratsaldean, Ereñotzun eta Hernanin kontzertuak eskainiko dituzte, gabonetako beroketa gisa.

Bi kontzertuak ordu berean eskainiko dira, arratsaldeko 19:00etan. Ereñotzuko kontzertua, Doinu Zaleko ikasle eta akordeoi orkestraren, eta Ozenkiren eskutik izango da. Eta Biterikoa berriz, Hernaniko Musika Eskolako teklatu taldearen eskutik.

Gabon Kanten jaialdia, bihar
Bihar, Gabon Kanten jaialdia ospatuko da Hernaniko San Joan Batailatzailearen elizan, arratsaldeko 20:00etan. Urtero, Kantuz Abesbatzak antolatutako ekimena da biharkoa, eta beste Abesbatzak gonbidatzeko ohiturari eutsiz, bertan izango dira; San Joan Parrokiako Abesbatza, Musika Eskolako Abesbatza Gaztea, Dakapo Abesbatza, Goiz Eguzki Abesbatza, Ozenki Abesbatza eta Kantuz Abesbatza, noski.

Santo Tomas eguna, oraindik ospatzeko
Etzi, Santo Tomas eguna ospatuko da Urumea bailarako bi eremutan, Ereñotzun eta Hernanin, hain zuzen ere. Ereñotzuko Santo Tomas festa Txirrita ikastolan ospatuko dute, eta 11:30etarako prest izango di-



Aurreko ostiralean Hernasax taldeak, kontzertua eman zuen Milagrosan.

tuzte talo eta pintxoaren postuak, bertako auzotarrak eta gurasoak bapo jan dezaten.

Hernanin berriz, Gabriel Zelaian ospatuko da Santo Tomas eguna, Zelabideko auzo elkar-tearen eskutik.

Larunbatean ere Santo Tomas ospatuko da, Goiz Eguzkin, eta goizeko 11:00ak aldera sariak eta zozketak egingo dira. Horrez gain, Gabonetako Kontzertua eskainiko da, arratsaldeko 20:00etan, Hernaniko San Joan Batailatzailearen Elizan, Ozenki, Umore Ona abesbatzaketan Hernaniko Musika Banda izango dira kontzertua emango dutenak.

Igandean berriz, Urumea Ikastolan ospatuko da Santo Tomas eguna, Gibelalde auzo elkar-tearen eskutik. 12:30etatik aurrera izango da txistorrada, eta 13:00ak aldera izango da zozketa.

Eta astelehenean, Musika Eskolako Olentzeroa egongo da Hernaniko erdigunean, eguerdiko 12:00etan. **K**

GABONETAKO EKINTZAK

HERNANI

GAUR
19:00, Musika Eskolako teklatu taldearen kontzertua, Biterin.

BIHAR
20:00, Gabon Kanten Jaialdia, San Joan Batailatzailearen Elizan.

ETZI
11:00- 14:30 Santo Tomas, Gabriel Zelaian.

ABENDUAK 21
11:00-14:00 Santo Tomas, Goiz Eguzkin.

20:00, Gabonetako kontzertua, Umore Ona, Ozenki eta Hernaniko Musika Bandaren eskutik, San Joan Batailatzailearen Elizan.

ABENDUAK 22
12:30, Santo Tomas, Urumea Ikastolan, eta 13:00etan zozketa.

ABENDUAK 23
12:00, Hernaniko Musika Eskola Publikoko Olentzeroa, erdigunean.

EREÑOTZU

GAUR
19:00, Kontzertua elizan, Doinu Zaleko ikasle eta akordeoi orkestraren eta Ozenkiren eskutik.

ETZI
11:30, Santo Tomas, Txirrita ikastolan. Talo eta pintxo postuak egongo dira, auzotar eta gurasoentzat.

Gabonetako sukaldaritza, gaur

HERNANI GABONETAKO SUKALDARITZA

Urtero moduan, Hernaniko emakumeen aisialdi zentroak, gabonetako menua prestatzen du. Urte honetan, Tipontzi tabernako sukaldariak prestatua izan da, Igor Muñoak hain zuzen. Gaur arratsaldeko 16:30etan izango da, Xalaparta elkartean. Eta antolatzaileek adierazi dute edonor izango dela ongi etorria.

Gaur azken eguna izena emateko

GOIZUETA UMORE ONA BAZKARIA

Igande honetan egingo da Umore Onako bazkideen bazkaria, eta gaur da azken eguna izena emateko, elkartean bertan edo Amaiarenean. Eguerdiko 14:30etan izango da bazkaria eta antolatzaileek animatzeko deia egiten dute.

Izena emateko azken eguna, Barrikotean

EREÑOTZU BARRIKOTEAN

Urtero moduan, Barrikotea egiten dute Ereñotzuko Ur Mia elkartean. Hori dela eta, larunbatean, arratsaldeko 20:30etan egingo dute, eta gaur da izena emateko azken eguna. Hainbat aukera daude izen emateko; Elkartean bertan, dendan, tabernan, edota telefono hauetara deituz (699 405 031/ 688 894 923).

Haur antzerkirako sarrerak, gaurtik

HERNANI HAUR ANTZERKIA

Datorren ostialean arratsaldeko 18:00etan, haur antzerkia eskainiko da Biterin, eta gaurtik eskuratu daitezke sarrerak. *Burbuilak* izeneko antzerki hau, testu gabea izango da eta 3 urtetik gorakoentzat zuzendatua da, hain zuzen.

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatia

www.kimerafisioterapia.com

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

GAUR Gaur berriro ere hego haizea izango da bueltan. Goizaldean haizea hegotik finkatu eta indartuz joango da eta eguneko protagonista izango da. **Min.8° / Max.17°**

BIHAR Bihar ere hego haizea indarrean ibiliko da eta hodeiak ugaritu egingo dira. Goizean ostarteak egon arren, arratsaldean lainoek zerua tapatuko dute eta horrek, euria ekarri dezake. **Min.12° / Max.18°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gauez: **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



«Herritarren oinarrizko zerbitzuak bermatuta daude»

EAJ-PNVren oharrari erantzuna eman nahi izan dio EH Bilduren Udal Gobernuak: «Udalaren ohiko zerbitzuek ondo funtzionatzen dute».

HERNANI UDAL GOBERNUA

Aurreko asteko EAJ-PNVren oharren harira, bere iritzia eman nahi izan du Udal Gobernuak: «EAJ-PNV zabaltzen ari den blokeo egoeraren irudi horrekin ez gaude ados. Udalaren ohiko zerbitzuek ondo funtzionatzen dute, herritarren oinarrizko zerbitzuak bermatuta daude».

«Obra batzuk exekutatzeko arazoak dauzkagu, egia da»

Oharrean onartzen dute hainbat arazo izaten ari direla: «Udalaren obra batzuk exekutatzeko arazoak dauzkagu, egia da; pertsonalean dauden hutsuneak eta lizitazio batzuetan sortu diren arazoak direla medio». Gainera, gogorazi dute: «administrazio publikoan langileen kontratazio ezin dira enpresa pribatuan bezala egin. Oposizio lehiaketak egin eta lan-poltsak

osatu behar dira. Denbora luze-ko prozedurak dira eta horretan lanean ari gara», azaldu dute.

Beste hainbat kontu ere argitu nahi dituzte: «kontratazio publikoetan, pertsonalaren hutsunez gain, lizitazio batzuk hutsik ere gelditu dira hainbatean». Dena den, diotenez, beste udaletan ere gertatzen da, «edozein alderdi dagoela gobernuan. Eraikuntza arloa, krisialdiaz geroztik, oso kontzentratuta dago eta enpresa asko lizitazio haundienetan bakarrik aurkezten dira: Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundien aurrekontu haundiko obrak edo udal haundien eskaintzak lehenesten dituzte. Horrek kalte nabarmena egiten digu udal txikiagoei».

Hori horrela, «Udalak aurrekusi dituen urbanizazio obrak, eraikin batzuetako birgaitzeak edota parke batzuen egokitzapenak atzeratu dira nahi bai-

no gehiago. Baina horrek ez du Udala blokeatzen. Kultur etxea, kiroldegia, musika eskola, euskaltegia, liburutegia, herri lanak, kale garbiketa, tramiteak egiteko zerbitzua, zaharren egoitza, eskolen mantenimendua, enplegu zentroa... Zerbitzu horiek dira oinarrizkoak, eraginik garrantzitsuena dutenak pertsonen bizi kalitatean eta horiek bermatuta daude. Ez ditzaugun bazterrak nahastu».

EAJ-PNVk «jarrera aldaketa»

Legealdi berrian «talde politiko guztien arteko harremanak eta komunikazioa hobetzea» daude erronken artean. 2020ko aurrekontua egiterakoan oposizio-ko talde guztei egin diete deia: «EAJ-PNVk aldaketa nabarmena izan du aurten. Beste urteetan, gure aurrekontu proposamenaren oinarrizko printzipioen kontra dagoela argudiatuta, negoziatzeko aukera baztertu izan du. Aurten, ordea, jarrera irekiagoa azaldu du. Pozten gara eta haien elkarpentzat batzuk txertatu ditugu. **K**

PSE-EE abstenitu egingo da 2020ko aurrekontuen aurrean

748.261 euroko aldaketa dakarten 26 emendakin partzial erregistratu ditu Hernaniko PSE-EEK; horietako batzuk onartu dituzte.

HERNANI PSE-EE

Bihar izango da Hernaniko Udalaren urteko azkeneko plenoa, arratsaldeko 18:00etan udal txeko pleno-aretoan. Bertan onartuko dituzte 2020ko udal aurrekontuak, eta Hernaniko PSE-EEK dagoeneko iragarri du abstenitu egingo dela. EH Bildurekin hainbat bilera izan ondoren, emendakin partzialekiko akordio «garrantzitsu batzuk» lortu dituelako.

Ricardo Crespo PSE-EEren bozeramaileak azaldu duenez, bere taldeak ezin ditu aurrekontuak babestu «diru-laguntza ideologikoak» ematen dituelako. Dena den, beraien artean dagoen «sintonia ona» kontuan hartuta, eta aurkeztutako 26 emendakin partzial batzuk onartu dituztela-eta, «konfiantza boto bat eta aukera bat» ematea erabaki dute, «Hernaniren eta herritarren onuragatik».

Emendakin batzuk, onartuta

Crespok azaldu du sozialisten taldeak sartu dituen emendakin partzialek 748.261 euroko aldaketa suposatzen dutela gastuetan. Emendakinak «sendo, funtsezko eta erabilgarriak» dira.

Horien artean daude: kirol taldeei 80.000 eurora igotzea diru-laguntza; Udaletxeko teilatua konpontzen denean plaka fotobolitaikoak jartzea; Atsegindegiko markesina haunditzea; euskera ikastaroak antolatzea auzoetan; baita azterketa bultzatzea wifi publikoa jartzeko Auzo Elkartearen lokaletan. Horrez gain, onartu dute «pultsadoreak ezartzea Elkano eta Latsunberen arteko bidegurutzean, trafikoa bizkortzeko».

Gainera, egiaztatu dute emendakin batzuk ere badaudela Udalaren agendan: Elizatxo-Portu erdialdearekin lotzeko

igogailua; liburutegiaren haunditzea eta beharrak lantzea; atzerapenak dauden udal sailetako pertsonalaren politika hobetzea; auzoetan partehartzea hobetzea hobekuntzak erabakitzeko; edota kanpo igerilekuen erabilpenak aztertzea.

Baztertu egin ditu, halaber, ondorengo hauek: eskola materiala erosteko 25.000 euro; herriko elkarteetara bideratutako laguntzeko kontratazioa egiteko 12.000 euro; 5.000 euroko partida atletismoko pista eserlekuak jartzea aztertzea; edo 25.000 euro hirugarren hizkuntza bat ikasteko.

Dena den, kritikatu dute proiektuak mantendu egiten dituela zenbait diru-laguntza: Hobeiki elkarteari (6.000 euro), eta Udalbiltzari (50.000 euro). Eta ez daude ados Zerbitzu Sozialetarako proposatutako lanpostu-zerrendarekin.

Horrez gain, atez atekoa modu berean jasotzen dela diote, baita ere: «ezker abertzalea ez dago hondakin-sistemaren inguruko eztabaida piztearen alde», kritikatu du. **K**

Migranteen Nazioarteko Egunarekin, bukaera

Jatorrizko magrebiar gazteek egindako antzerki bat izango da gaur, arratsaldeko 18:00etan, Urumea Herri Gunean.

HERNANI HERNANI SOLIDARIOA

Pasa den abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunarekin eman zioten hasiera aurreko astean *Hernani Solidarioa* egitasmoari, eta gaur emango diote bukaera, Migranteen Nazioarteko Egunarekin.

Horretarako, antzerki bat

Antzerkiak gain, testuen irakurketa ere egingo dute gaur.

eskainiko dute jatorrizko magrebiar gazteek. Urumea Herri Gunean egingo dute, arratsaldeko 18:00etan hasita. Antzerkiak gain, testu irakurketak ere egingo dituzte.

Jarduera hauekin guztiarekin, adierazi dute, Hernani «herri hobe eta justuagoa dela ikusarazi» nahi dutela. **K**

Nairobiarra jolasa, gaur

HERNANI GAZTELEKUA

Abenduko ekintzetan murgilduta daude Hernaniko gazteak Gaztelekuan. Gaurkoan, Nairobiarra jolasean aritzeko aukera izango dute. Ostiralean, aldiz, Wii jolasean arituko dira, gazteek beraiek proposatuta, eta Santo Tomas eguna ospatuko dute larunbatean bertan, txistor janarekin.

Hitzaldia, Sasoiuzen eskutik

HERNANI SASOITUZEN HITZALDIA

Bihar arratsaldeko 18:30etan, Sasoiuzek hitzaldia eskainiko du. Hizlaria, Iñaki Arratibel izango da, eta gai interesgarri buruz jardungo du, hala nola, esfortzu kargen intentsitatea, bolumena...


Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskola jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† ELVIRA CABO LOPEZ

Atzo hil zen, 82 urte zituela
Goian Bego
Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan

ZURE FAMILIA



Hernanin, 2019ko abenduaren 18an

BLANCA GARCIA MENDIOLA

Familiari agurrik beroena

Hernani BHI Institutuko guraso, ikasle, irakasle eta langile ez irakasleak



Hernanin, 2019ko abenduaren 18an

IRAGARKI MERKEAK

Sagardotegi garaian parrilan lan egiteko norbaiten bila gabilta. Deitu: 659 48 92 02 Martxan dagoen alimentazio denda salgai, jubilazioagatik, Hernaniko Etxeberri auzoan.

Deitu: 647 886 950

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**